

Zelan hurreratu autore klasikoengana? Zelan hurreratu autore klasikoak gugana? Zer da klasikoa? Zer da tradizioa?

Bizenta Mogel Azkoitian jaio arren, neure jaioterritik pare bat kilometrora hazi eta hezi zen: Markina-Xemeinen.

XVIII. mende amaiera zen. Baserriz inguraturiko kaleko etxe batean zortzi urte inguruko neskato bat latinezko liburuak irakurtzen eta euskarazko alegiak idazten ari zen, kriseiluaren argipean.

Ezin izan nuen burutik kendu. Irudi hura sasoi hartako Markinara txangoa egiteko gonbidapena zen, zalantzarik gabe.

Informazio bila hasi eta artikulu eta ikerketa ugarirekin aurkitu nintzen. Eta, datuak lotu ahala, ikertzen jarraitzeko irrika areagotzen zihoan neurrian, bizipen hura norbaitekin partekatzeko gogoia piztu zitzaidan.

Halaxe sortu zen ***Bizenta Mogel (1782-1854): andre argi baten ikurrak*** tailerra, non mota askotako informazioa deszifratzen goazen, aurrez aurre ditugun hamaika pakete irekitzen dugun heinean.

Hasteko, baina, biribilean esertzen gara, paketeok aurrez-aurrez ditugula, eta soka bat luzatzen dugu partaideon artean, *Tradizio* eta *Historia* hitzen ezaugarri bizia nabarmentzeko. Gero, aipaturiko paketeok zabaltzen hasten gara, detektibeak edo ikerlariak bagina bezala.

Paketeetan bina objektu eta gutunazal bana daude, pakete bakoitzaren aurrean dagoenak

agerira aterako dituenak gainontzekoen informaziorako.

Halaber, gutunazal bakoitzaren ganean, ikur baten izenburua dator idatzita eta, gutunazalaren barruan, berriz, mota askotako datuak aurkiko ditugu, hara nola, eskutitzak, eskuizkribu zatiak, adituen iritziak..., andre idazle hark txikitan hasitako **balizko egunkari orri solte batzuk** eta guztia imajinatzen laguntzen digun **gaur egungo narratzaile bat**.

Datuak eta objektuak aldiari aldiko ikurra ulertzeko pista bihurtzen dira saioak aurrera egin ahala eta, horrela, pistak eta datuak deszifratuz goazen neurrian, protagonistaren izaera, obra eta testuingurua hobeto ulertzen lagun ditzaketen hamar ikur osatzen joaten gara, hausnarketa, talde lana, intriga eta irudimena gidari direla.

Azkenean, paketeak berriro bildu ondoren, ekitaldiaren hasieran, partaideen artean zabalduko soka batzen dugu berriro, *Tradizioa* eta *Historia* kategorien izaera bizia eta gaurkotua (eta, beraz, subjektiboa), frogatuta geratu direla erakusteko.

Amaitzeko, partaide bakoitzari **Bizenta Mogel, andre argiaren ikurrak** batzen dituen **dekalogoa** ematen zaio, **laburpen gisa**, oinarritzko **bibliografia** eta **link** interesgarrienekin.

[\(Ikus Lea-Artibai eta Mutrikuko HITZAn Eider Murgategik egindako elkarrizketa\)](#)

BIZENTA MOGEL (1782-1854). ANDRE ARGI BATEN IKURRAK

ZER Tailerra
IRAUPENA Ordu eta erdi inguru
NORK Yolanda Arrieta Malaxetxebarria
PARTAIDE KOP. 25-40
NORENTZAT

- Irakasleak

- Goi mailetako euskara ikasleak

- DBH-4 eta Batxilergoko ikasleak

- Irakasle Eskoletako ikasleak

- Irakurle-taldeak

- Jabekuntza eskoletako partaideak

- Interesa duen edonor

TAILERREAN LANTZEN DIREN GAIAK

- . Autore klasikoengana hurbiltzeko moduak

. XVIII. mendeko emakume idazle euskaldun bat bere testuinguruan

. Euskararen sustraiak

. Herria/Hiria harremana/dikotomia

. Ilustrazioaren eragina euskal letretan

. Kultura klasikoa / herri kultura

. Bizkaiera

. Euskara, ahozkotik paperera

. Bilbo euskaldunaren arrastoak